

El rincón de la silla-oreja y la silla-boca

Introducción

Educar para la convivencia requiere dar a los alumnos/as, desde las etapas iniciales, la oportunidad de resolver, por sí mismos/as, los conflictos reales que surgen en los centros escolares mediante la colaboración y el diálogo. Esta experiencia es crucial para que el alumnado adquiera habilidades sociales y de resolución de conflictos e interiorice valores básicos de convivencia.

El rincón de la silla-oreja y la silla-boca constituye un procedimiento y una estructura para el diálogo y la negociación que permite a los/las alumnos/as resolver sus conflictos, de forma autónoma, sin la ayuda de una persona adulta, el/la docente.

La utilización del rincón es especialmente adecuada en la educación infantil y en el primer y segundo ciclo de la educación primaria. Tanto el aula como los espacios comunes del centro (pasillos, patios, ludotecas,...) pueden ser lugares apropiados para establecer en ellos un “rincón”. Los conflictos interpersonales entre alumnos/as de baja intensidad son los que mejor se resuelven mediante el procedimiento de la silla-oreja y la silla-boca.

En el aula, el “rincón” se sitúa en la parte trasera, en el extremo opuesto al que ocupa el/la profesor/a. En este lugar, especialmente reservado al efecto y en el que no se realiza ninguna otra actividad, se colocan dos sillas, cada una de las cuales tendrá la función de asignar un rol a su ocupante. Una será la silla-oreja y otra la silla-boca. Las dos sillas se diferencian mediante un gran dibujo pegado a su respaldo, en un caso, de una oreja, y en el otro, de una boca. También cabe la posibilidad de colgar un cartel en la pared con cada uno de los dibujos o crear unas “piruletas” con los mismos.

Cuando dos alumnos/as tienen un conflicto dentro del aula o vuelven del recreo con un conflicto sin resolver, el/la profesor/a les invita a ir al rincón para intentar solucionarlo por sí mismos/as. La propuesta es siempre una invitación y no una imposición, ya que su uso debe ser voluntario.

En muchas ocasiones, y cada vez con mayor frecuencia, los/as alumnos/as acudirán al rincón por sí mismos/as cuando tengan un conflicto. Este comportamiento, con el paso de los meses, se hará más sistemático.

Funcionamiento

Dos alumnos/as que tienen un conflicto pueden acudir al rincón por su propia iniciativa o ser invitados a hacerlo por el/la docente, pero siempre irán de forma voluntaria, de otro modo, el procedimiento no funcionaría.

En el rincón, cada uno/a de los/as niños/as ocupa una de las sillas. El lugar está separado del resto de la clase, los/as alumnos/as están solos/as y su conversación es privada. El/la ocupante de la silla-oreja escuchará lo más atentamente posible a su compañero/a y no puede hablar, ni siquiera despegar los labios para evitar las interrupciones. El otro alumno, en la silla-boca, tiene el turno de palabra.

El procedimiento se desarrolla mediante los siguientes pasos o normas:

1. El/la niño/a que ocupa, en primer lugar, la silla-boca tiene la palabra y su tarea es contar qué ha ocurrido y cómo se siente mientras su compañero/a escucha atentamente en la silla-oreja.
2. Una vez que el/la primer/a niño/a ha terminado de hablar se cambian de silla e invierten sus papeles. Ahora será el/la segundo/a niño/a quien tiene la palabra para explicar, según su punto de vista, qué ha ocurrido y cómo se siente.
3. En el segundo turno de palabra, el/la primer/a niño, sentado de nuevo en la silla-boca, tiene como función decir qué puede hacer él o ella para solucionar el conflicto o problema.
4. Una vez más, se intercambian las sillas y los roles y el/la segundo/a niño/a propone también algo que él o ella pueda hacer para solucionar el conflicto.

Para los alumnos/as del 2º ciclo de educación primaria se introduce una norma de funcionamiento extra: en cada turno, antes de cambiar de silla cada alumno/a ha de parafrasear correctamente lo que ha dicho su compañero/a.

Este proceso consta habitualmente de dos turnos de palabra para cada uno/a de los/las implicados/as en el conflicto, aunque en ocasiones los alumnos pasan más veces por cada una de las sillas hasta que encuentran una solución satisfactoria para ambos/as.

Estos pasos o normas de funcionamiento del “rincón” se muestran en un cartel colocado en la pared junto a las sillas, ya sea por escrito, en educación primaria, o mediante dibujos en los cursos de educación infantil.

Una vez terminado el proceso, los/as alumnos/as acuden a el/la profesor/a quien hace un pequeño seguimiento de lo ocurrido. Les pregunta si han encontrado una solución, en qué consiste tal solución y si ambos están satisfechos con ella. Si es así, los/las alumnos se incorporan de nuevo a las tareas del aula. En el caso de no haber alcanzado una solución consensuada, el/la profesor/a propondrá otra alternativa o proceso para abordar la situación, como la mediación o el cumplimiento de alguna consecuencia educativa.

La experiencia de muchos centros escolares demuestra que utilizando sistemáticamente el “rincón” a lo largo del curso se obtienen algunos resultados claros:

- El “rincón” se convierte en un lugar o espacio que sirve a los/las alumnos para tranquilizarse.
- Los/las alumnos/as aprenden a escucharse los unos/as a los otros/as.
- Los/las alumnos interiorizan el diálogo como primera opción ante el conflicto.
- Los/las alumnos/as aprenden a solucionar sus conflictos por sí mismos/as sin acudir al docente y éste/a dedica menos tiempo a esta tarea.

Actividades en el aula para la preparación del “rincón de la silla oreja y silla boca”

La creación y puesta en marcha de un “rincón” en el aula requiere la participación directa del alumnado. De este modo, sintiéndose partícipes de su creación, los/las niños/as lo consideran como algo suyo e importante, se vinculan a él y lo utilizan más. Durante el proceso de implementación debemos transmitir al alumnado que el “rincón” es un espacio que hay que respetar y honrar, que no es un lugar para jugar o perder el tiempo ya que nos servirá para solucionar problemas y convivir mejor.

Para ello, se debe dedicar un mínimo de dos sesiones de una hora en cada una de las cuales se realizará con el grupo-clase cada una de las siguientes actividades.

Actividad nº 1: Creación del rincón de la silla-oreja y la silla-boca
--

Materiales:

- Lámina/dibujo o breve texto con un ejemplo de un conflicto cotidiano interpersonal entre alumnos/as
- Cartel con las normas o pasos de funcionamiento del rincón

Duración:

- 60 minutos

Objetivos:

- Comprender que hay diferentes formas de solucionar los conflictos
- Promover el diálogo como modo de resolver los conflictos
- Presentar el funcionamiento del “rincón” a los/las alumnos/as

Procedimiento:

1. Se realiza una lluvia de ideas sobre ejemplos de conflictos cotidianos entre el alumnado, en el aula, en el patio, en el autobús,.... Si los/las alumnos/as no aportan ejemplos adecuados el/la docente inicia la actividad presentando un ejemplo

cercano de un conflicto interpersonal entre alumnos/as con una lámina o un breve texto.

2. Utilizando uno de los ejemplos aportados por los/las alumnos/as o el caso presentado por el/la docente, se profundiza en su comprensión mediante las siguientes preguntas: “¿qué ha sucedido?”, “¿cómo se siente cada una de las personas?”, “¿qué necesita cada una de las personas para sentirse bien?”, “¿cómo se puede resolver este problema?”.
3. Se pide a los/las alumnos que den ideas para resolver el conflicto y se anotan en la pizarra. Para cada una de las ideas se pregunta a los alumnos/as:
 - “¿Ambos niños/as estarían contentos con esta solución? (ganar-ganar)”.
 - “¿Un/la de los niños/as estaría triste y otro/la contento/a con esta solución? (ganar-perder)”.
 - ¿Ambos niños/as estarían tristes con esta solución? (perder-perder)”.
4. Se explica que los conflictos, muchas veces, pueden ser resueltos de manera que ambas partes se sientan bien, ambas ganando. Para conseguir esto, hay que hacerlo hablando, dialogando y entendiendo bien el problema.
5. Se presenta el rincón de la silla-oreja y la silla-boca como algo que vamos a construir juntos/as en el aula para resolver los conflictos que tengamos a lo largo del curso mediante el diálogo, para que salgamos todos/as ganando y estemos contentos/as.
6. Se exponen las normas de funcionamiento del rincón, tal y como han sido descritas en el apartado anterior, y se muestra un cartel con los pasos básicos.
7. Se realiza un “rol play” entre dos profesoras/es o un/a profesor/a y un alumno/a voluntario/a ejemplificando la resolución del conflicto tomado como ejemplo en el rincón y siguiendo sus normas de funcionamiento. En el caso de hacerse este simulación con un alumno/a voluntario, es imprescindible prepararla de antemano con el/la mismo.
8. Se comenta la solución alcanzada entre toda la clase.

Actividad nº 2: Creación del rincón de la silla-oreja y la silla-boca

Materiales:

- Dos sillas
- Pinturas, cartones, cartulinas, cello, pegamento,...

Duración:

- 60 minutos

Objetivos:

- Promover la implicación del alumnado en la construcción del rincón en el aula
- Preparar el espacio y las sillas que van a ser utilizadas como rincón a lo largo del curso
- Aprender y practicar las pautas de funcionamiento del rincón

Procedimiento:

1. Se elige el lugar del aula en el que se va a ubicar el rincón.
2. Se decide y se hace una lista, entre toda la clase, de los elementos u objetos que es necesario elaborar para preparar el rincón.
3. Se organiza al alumnado en grupos para su elaboración y se distribuyen las tareas entre los grupos:
 - Los dibujos de la oreja y la boca para pegarlos a los respaldos de las sillas o para colocarlos como carteles en la pared.
 - El cartel con las normas de funcionamiento del “rincón”. Puede utilizarse el cartel elaborado y presentado por el/la docente o crear uno nuevo hecho por los/las alumnos/as.
 - Elementos ornamentales para decorar el “rincón”, por ejemplo una alfombra hecha con cartones pintados y pegada al suelo con cello grueso.
 - Unos dibujos para decorar la pared cercana al rincón que representen el diálogo o las soluciones “ganar-ganar”.
 - Otros...
4. Se colocan los materiales elaborados creando el espacio del rincón.
5. Recordando la lluvia de ideas de la actividad anterior sobre conflictos cotidianos de los/as alumnos/as, se comenta si esos conflictos podrían resolverse en el “rincón”.
6. Se recuerdan las normas de funcionamiento del “rincón” y se pide a dos voluntarios/as que hagan un “rol play” representando la solución de uno de los conflictos identificados en la lluvia de ideas. Se analiza en grupo lo ocurrido durante la representación.
7. En el 2º ciclo de educación primaria se forman parejas de alumnos/as para que cada una represente, de nuevo, los pasos de funcionamiento del rincón con un conflicto seleccionado entre toda la clase.
8. Se analiza con el grupo lo acontecido durante la representación y las soluciones alcanzadas.
9. En educación infantil y en el primer ciclo de educación primaria, se repite el paso 6 por segunda vez en lugar de continuar con el paso número 7 y el 8.

Belarri-aulki eta aho-aulkiaren txokoa

Sarrera

Elkarbizitzarako hezteak eskatzen du ikasleei, hasierako etapetatik, ikastetxean sortzen diren benetako gatazkak, elkarlanaren eta elkarrizketaren bidez, bere kabuz ebazteko aukera ematea. Esperientzia hau funtsezkoa da ikasleek gizarte-trebetasunak eta gatazkak ebazteko trebetasunak eskura ditzaten eta elkarbizitzaren oinarrizko baloreak barnera ditzaten.

Belarri-aulkiaren eta aho-aulkiaren txokoa elkarrizketarako prozedura eta egitura da; txoko honek ikasleei gatazkak autonomoki, pertsona heldu baten laguntzarik gabe, irakaslerik gabe ebazteko aukera ematen die.

Txokoaren erabilera bereziki egokia da haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako lehen eta bigarren zikloetarako. Bai ikasgela eta bai espazio komunak (pasilloak, patioak, ludotekak,...) toki egokiak izan daitezke “txoko” bat kokatzeko. Ikasleen artean izaten diren intentsitate baxuko pertsonarteko gatazkak ebazten dira ondoen belarri-aulkiaren eta aho-aulkiaren prozeduraren bidez.

Ikasgelan, atzealdean kokatuko da “txokoa”, irakaslearen tokiaren beste muturrean. Toki honetan, bereziki horretarako gordetako lekua eta beste inolako jarduerarik egiten ez dena, bi aulki jarriko dira, eta aulkietako bakoitzaren funtzioa izango da eseriko denari rol bat ematea. Bat belarri-aulkia izango da eta bestea aho-aulkia. Bizkaraldean erantsitako marrazki handi baten bidez bereiziko dira bi aulkiak, batean belarria eta, bestean, ahoa. Beste aukera bat da kartel bat zintzilikatzea horman bi marrazkiekin edota “piruleta” batzuk sortzea marrazki hauekin.

Ikasleek gatazka bat dutenean gela barruan, edota atsedenalitik gatazka bat konpondu gabe itzultzen direnean, irakasleak txokora gonbidatuko ditu beren kabuz konpontzen ahalegin daitezzen. Proposamena beti gonbidapena izango da eta ez inposizioa, izan ere, bere erabilera borondatezkoa izan behar da.

Kasu askotan, eta gero eta maizago, ikasleak bere kabuz joango dira txokora gatazka bat dutenean. Jokaera hau, hilabeteak igaro ahala, sistematikoa bihurtuko da.

Funtzionamendua

Gatazka duten bi ikasle bere kabuz joan daitezke txokora, edota irakasleak gonbidatuta, baina beti borondatez joango dira, bestela, prozedurak ez bailuke funtzionatuko.

Txokoan, bakoitza aulki batean eseriko da. Tokia gainerako ikaskideengandik bereizita dago, ikasleak bakarrik daude eta bere elkarrizketa pribatua da. Belarri-aulkikoak ahalik eta adien entzungo dio lagunari eta ezin du hitz egin, ezta ezpainak ireki ere, etenik gerta ez dadin. Beste ikaslearena, aho-aulkikoa, da hitz egiteko txanda.

Prozedura urrats edo arau hauen bidez garatuko da:

5. Lehendabizi, aho-aulkian eseritako haurrak du hitza eta bere eginbeharra zer gertatu den eta nola sentitzen den kontatzea da, ikaskideak belarri-aulkian eserita erne entzuten duen bitartean.
6. Lehen haurrak hitz egiten amaitutakoan, aulkiz aldatu eta eginkizunak aldatu egingo dituzte. Orain bigarren haurrak izango du hitza, bere ustez, zer gertatu den eta nola sentitzen den azaltzeko.
7. Hizketarako bigarren txandan, lehendabiziko haurrak, berriro ere aho-aulkian eserita, berak zer egin dezakeen gatazka edo arazoa konpontzeko esango du.
8. Berriro ere, aulkia eta rola trukatu egingo dira eta bigarren haurrak ere berak gatazka konpontzeko zer egin dezakeen proposatuko du.

Lehen hezkuntzako 2. zikloko ikasleentzat funtzionamendu-arau berezi bat sartuko da: txanda bakoitzean, aulkiz aldatu aurretik, ikasle bakoitzak kideak esandakoa parafraseatuko du zuzen.

Prozesu honek bi txanda izan ohi ditu gatazkan inplikaturako bakoitzarentzat, nahiz eta zenbaitetan ikasleak gehiagotan pasatzen diren aulki bakoitzetik, bien gustukoa den irtenbidea topatu arte.

“Txoko”aren funtzionamendurako urrats edo arau hauek kartel batean erakutsiko dira aulkien ondoko horman, bai idatziz, lehen hezkuntzan, edota bai marrazki bidez haur hezkuntzan.

Behin prozesua amaituta, ikasleak irakaslearengana joango dira eta honek gertatutakoaren jarraipen txiki bat egingo du. Galdetuko die ea irtenbiderik aurkitu duten, zertan datzan eta biak gustura dauden konponbide horrekin. Hala bada, ikasleak gelako lanetara itzuliko dira. Irtenbide adostu bat lortu ezean, irakasleak beste aukera edo prozesu bat proposatuko du egoerari heltzeko, esate baterako, bitartekaritza edota ondorio hezigarriren bat betearaztea.

Ikastetxe askoren esperientziak egiaztatu du “txokoa” sistematikoki erabilia ikasturtean zehar emaitza argi batzuk lortzen direla:

- “Txokoa” ikasleei lasaitzeko balio dien gune bihurtzen da.
- Ikasleek elkarri entzuten ikasten dute.
- Ikasleek elkarrizketa lehen aukera gisa barneratzen dute gatazkaren aurrean.

- Ikasleek gatazkak bere kabuz konpontzen ikasten dute irakaslearengana jo gabe eta irakasleak denbora gutxiago eskaintzen dio zeregin honi.

“Belarri-aulkiaren eta aho-aulkiaren txokoa” prestatzeko jarduerak ikasgelan

Ikasgelan “txoko” bat sortzeak eta abian jartzeak ikasleen parte-hartze zuzena eskatzen du. Honela, sorreraren partaide sentiturik, ikasleek berea eta garrantzitsua den zerbaitentzat hartzen dute, lotu egiten zaizkio eta gehiago erabiltzen dute. Inplementazio-prozesuan zehar, ikasleei transmititu behar diegu “txokoa” errespetatu eta ohoratu beharreko espazioa dela, ez dela jolaserako edo denbora galtzeko leku bat, arazoak konpontzeko eta elkarrekin hobeto bizi izateko balioko baitigu.

Horretarako, ordu beteko bi saio gutxienez egin behar dira, eta bakoitzean taldearekin jarduera hauetako bakoitza egingo da.

I. jarduera: belarri-aulkiaren eta aho-aulkiaren txokoa sortu

Materialak:

- Lamina/marraskia edo testu laburra, ikasleen pertsonarteko gatazken adibide bat jasotzen duena.
- Txokoaren funtzionamendurako arau edo urratsen kartel bat.

Iraupena:

- 60 minutu

Helburuak:

- Gatazkak konpontzeko modu desberdinak daudela ulertu.
- Elkarrizketa sustatu gatazkak ebazteko modu gisa.
- “Txokoa”ren funtzionamendua aurkeztu ikasleei.

Prozedura:

9. Ideia-jasa egingo da, ikasleen artean gelan, patioan, autobusean,... ohiko diren gatazka-adibideei buruz. Ikasleek adibide egokirik botatzen ez badute, irakasleak emango dio hasiera jarduerari, ikasleengandik hurbileko pertsonarteko gatazka bat aurkeztuz lamina edota testu labur baten bidez.
10. Ikasleek aipatutako adibideetako bat edo irakasleak aurkeztutako kasua erabiliz, beronen ulermenean sakonduko da honelako galderen bidez: “zer gertatu da?”, “nola sentituko da pertsona bakoitza?”, “zer behar du bakoitzak ondo sentitzeko?”, “nola konpon daiteke arazo hau?”.

11. Ikasleei gatazka ebazteko ideiak botatzeko eskatuko zaie, eta arbelean idatziko dira. Ideia bakoitzerako zera galdetuko zaie ikasleei:
 - “*Bi haurrak gustura egongo lirateke irtenbide honekin? (irabazi-irabazi)*”.
 - “*Haurretako bat triste legoke eta bestea pozik irtenbide honekin? (irabazi-galdu)*”.
 - *Biak triste leudeke irtenbide honekin? (galdu-galdu)*”.
12. Adieraziko da gatazkak, askotan, bi aldeak ondo sentitzeko moduan konpon daitezkeela, biek irabaziz. Hau lortzeko, hitz egin eta arazoa ondo ulertu behar da.
13. Belarri-aulkiaren eta aho-aulkiaren txokoa aurkeztuko da gelan. Esango da denok elkarrekin eraikiko dugun zerbait dela, ikasturtean zehar izango ditugun gatazkak elkarriketaren bidez ebazteko, denok irabazten irteteko eta pozik egoteko.
14. Txokoaren funtzionamendu-arauak azalduko dira aurreko atalean adierazi bezala, eta kartel bat jarriko da oinarrizko urratsekin.
15. “*Rol play*” bat egingo da bi irakasleren edo irakasle eta ikasle boluntario baten artean, txokoan adibidetzat hartutako gatazkaren ebazpena antzetzuz eta bere funtzionamendu-arauei jarraituz. Simulazio hau ikasle boluntario batekin egitekotan, beharrezkoa da aurrez prestatzea berarekin.
16. Lortutako irtenbidea talde osoan komentatuko da.

2. jarduera: Belarri-aulkiaren eta aho-aulkiaren txokoa sortu

Materialak:

- Bi aulki
- Margoak, kartoiak, kartoi meheak, zelaia, kola,...

Iraupena:

- 60 minutu

Helburuak:

- Ikasleen inplikazioa bultzatu gelan txoko eraikitzen.
- Ikasturtean zehar txokotzat erabiliko diren espazio eta aulkiak prestatu.
- Txokoaren funtzionamendurako jarraibideak ikasi eta praktikatu.

Prozedura:

10. Txokoa kokatuko den gelako tokia aukeratuko da.
11. Ikaskide guztien artean, txokoa prestatzeko egin behar diren elementu edo objektuen zerrenda erabaki eta egingo da.

12. Ikasleak taldeka antolatuko dira eta zereginak talde horien artean banatuko dira:
- Belarri eta ahoaren marrazkiak, aulkien bizkarraldean itsasteko edo horman kartel modura jartzeko.
 - Txokoaren funtzionamendu-arauen kartela. Irakasleak egin eta aurkeztutako kartela erabil daiteke edota ikasleek berria sortu.
 - Txokorako apaingarriak, adibidez, margotutako kartoiez egindako alfonbra bat eta zoruan itsatsita zelo lodiz.
 - Txokoaren ondoko horma apaintzeko marrazki batzuk, elkarrizketa edo “irabazi-irabazi” irtenbideak irudikatzen dituztenak.
 - Beste batzuk...
13. Egindako materialak jarriko dira, txokoaren espazioa sortuz.
14. Aurreko jarduerako ideia-jasa (ikasleen ohiko gatazken ingurukoa) gogoratu, komentatuko da ea gatazka horiek konpon ote litezkeen “txokoa”.
15. “Txokoa”ren funtzionamendu-arauak gogoratuko dira eta bi boluntariori “rol play” bat egiteko eskatuko zaie, ideia-jasan identifikatu diren gatazketako baten irtenbidea antzeztea, hain zuzen ere. Antzezpenean zehar gertatutakoa aztertuko da taldean.
16. Lehen hezkuntzako 2. zikloan ikasle-bikoteak osatuko dira bakoitzak berriro antzez ditzan txokoaren funtzionamendu-urratsak, talde osoaren artean aukeratutako gatazka baten bidez.
17. Antzezpenean zehar gertatutakoa eta lortutako irtenbideak aztertuko dira taldearekin.
18. Haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzako lehen zikloan, 6. urratsa errepikatuko da bigarren aldiz, 7. eta 8. urratsekin jarraitu ordez.